



DE MAR A MAR
PYRÉNÉES DE CIRQUE

SORKUNTZA BABESTEKO FUNTSA SORKUNTZA EGONALDIAK

2. DEIALDIA

Sorkuntza egonaldi ibiltariak, Pirinioetako zirku proiektu garaikideentzat

(Proiektuak aurkezteko epemuga: **2017ko irailaren 1a**)

De Mar a Mar 2016-2019 eperako lankidetzaz proiektu bat da. Europar Batasuneko (FEDER) Eskualdeen Garapenerako Europar Funtsak % 65ean finantzatzen du, Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra Programaren bidez (POCTEFA 2014-2020).

Bere xedea da zirkuaren sorkuntza eta hedatzea sustatzea Pirinioetako bi aldetako eskualde guztietan eta, horretarako, zirku artisten aldeko orientazio-, prestakuntza- eta akonpainamendu-jarduerak bultzatuko ditu, elkartasun-harremanak sortuz ogibide guztiarekin: sorkuntza eta prestakuntza zentroak, talde artistiko sendoak eta programatzaileak.

Mugaz gaindiko inguru horretako 14 kidek bultzatuta, ondokoak bezalako ekintza berritzaileak aurreikusten ditu:

- babeste solidarioa talde sendoen eta artista sortu berrien artean,
- ikerketari eta sorkuntzari laguntzeko aseguratutako funtsa,
- hautaketa eta jarraipen sistema bat, ezagutza trukatzeko gunea izango dena artista eta profesionalentzat,
- prestakuntza-ekintzak, gazteak merkatuan sartzeko prestatzeko,
- Eta hedapen sare bat, artistei beren lehen urratsetan akonpainamendua eskaini eta programatzaileak laguntza horren inguruan sentsibilizatzeko.

Deialdi honen xedea da **Sorkuntza babesteko funtsa**. Funtsaren helburua da sorkuntza-baldintzak hobetzea artista eta konpainientzat eta Pirinioetako bi aldetako mugikortasuna sustatzea, sorkuntza prozesuan zein horren osteko hedatzean zehar.

Sorkuntza babesteko funts honen bidez, **De Mar a Mar**-eko kideen nahia da:

- Konpainiei beren lanak beste lurralde batzuetan lantzeko aukera ematea, beste zabalkunde-sare eta beste ikusle batzuekin harremanetan ahalik eta arinen jartzeko helburuarekin.
- Zirkuko ikuskizunak zabaltzeko eta sustatzeko aukerak areagotzea, sorkuntzaren fase desberdinetan, proiektu baten hasieratik erakusten den arte.
- Zirkuko konpainien ekintza-eremua zabaltzea, beren lanen garrantzia mugen arteko dimentsioa har dezan.
- Erakutsiko diren zirkuko ikuskizunak sortzen laguntzea, formatu desberdinetan aurkezteko aukera eta atzerrira eramateko aukera izatea.

De Mar a Mar egitasmoak laguntza emango die:

- **Artista edo talde hasiberrien proiektuei (B modalitatea)**
- **Finkatutako artista edo taldeen proiektuei (C modalitatea)**

Oharra: Beste deialdi bat zabalik dago A modalitaterako (ikerketa).

Laguntza hori emateko sorkuntzarako espazioak lagako dira, proiektuaren beharrezanean egokitutako laguntza artistikoa, teknikoa edo/eta kudeaketakoa emango da, eta laguntza ekonomikoa emango da.

MODALITATEAK B edo C

2 modalitateentzako komuna den irizpidea: Kataluniak, Okzitaniak, Akitania Berriak, Aragoik, Euskadik eta Nafarroak hartzen duten eremu geografikoa izatea, Espainia eta Frantziaren¹ arteko mugaz gaindiko inguruneak lehentasuna izango duelarik (hau da, inguru horretan bizi direnek edo konpainiaren egoitza dutenek).

Guztira **5 eta 10 proposamen** bitartean aukeratuko dira.

Egonaldiak “mugaz gaindiko ingurunea” delakoan egingo dira bakarrik, ondoko sorkuntza espazioetan:

- Espainia: Bartzelona (La Central del Circ) – Huesca (Mataderoko kultur zentroa) – Bilbo (Harrobia edo Zirkozaurre)
- Frantzia: Tolosa (La Grainerie eta Jean-Jaurès Unibertsitatea) – Ax-les-Thermes (Ax Animation) – Euskal Hirigune Elkargoa (Luhusoko Harri Xuri gela eta Donazaharreko Arradoi gela)

¹ “Mugaz gaindiko ingurunea :

- Espainia : Gipuzkoa, Nafarroa, Huesca, Lleida, Girona, Bartzelona, Tarragona, Zaragoza, Errioxa, Bizkaia eta Araba
- Frantzia : Pirinio Atlantikoak, Hautes-Pyrénées, Haute-Garonne, Ariège, Ekialdeko Pirinioak.
- Andorra

B // Konpainia sortu berriak babesteko funtsa	C // Konpainia sendoak babesteko funtsa
<p>Hartzaileak</p> <p>Zirku garaikideko ikuskizun bat sortzeko proiektu bat duen artista edo talde profesional sortuberri oro, ondoko irizpideekin bat:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sortuberri hitzak esan nahi du hedatua izan den lan luze oraindik sortu ez duen artista edo taldea dela. • 30 minutuko iraupena (kalerako bada) edo 50 minutuko iraupena (aretoan antzezteko bada) gutxienez duen proiektu artistiko berria izatea, sorkuntza eta produkzio egutegia zehaztuta duela ere. <p>Aukeratutako proiektu bakoitzak ondokoak jasoko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sorkuntza egonaldirako espazioak (1-2 asteko 2 edo 3 egonaldi). Egonaldiak 2017ko azaroa eta 2019ko otsaila bitartean egingo dira. • 5.000 €-ko diru-laguntza (BEZa barne), artistak edo konpainiak egonaldian zehar izan ditzakeen produkzio gastuak estaltzeko. • Mugikortasun diru-laguntza bat (2.000 euro, gehienez – BEZa barne), sorterritik kanpoko eginiko egonaldien garraio eta ostatu gastuak estaltzeko. • Akonpainamendua sorkuntza prozesurako; babes administratiboa, komunikaziorako laguntza eskainiaz, etab.).Itsasotik Itsasorako kideek arduradun bat izendatuko dute proiektu bakoitzerako. <p>Aukeratutako artistak edo taldeak hartuko dituen konpromisoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Egonaldiak bi espazio ezberdinetan egitea gutxienez eta, posible balitz, horietako bat beste herrialdean egitea, sorkuntza espazioetako egutegiak aipatua ahalbidetzen dutenean; - Lan-fase bat aurkeztea egonaldi bakoitzean, lanaren aurrerapenaren arabera beti. - Egonaldia hartzen duen espazioaren dinamikan parte-hartzea: ikusle ezberdinekin eginiko topaketak (bitartekaritza kulturala), aurkezpenak, etab. - Jasotako laguntzaren kopurua faktura bidez justifikatzea; halaber, laguntza honekin ordainduriko gastu guztien ordainagiri 	<p>Hartzaileak</p> <p>Zirku garaikideko ikuskizun bat sortzeko proiektu bat duen artista edo talde profesional sendo oro, ondoko irizpideekin bat:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sendo hitzak esan nahi du kultur zirkuituetan aurkeztua izan den ikuskizun bat gutxienez izango duela artistak edo taldeak. • 30 minutuko iraupena (kalerako bada) edo 50 minutuko iraupena (aretoan antzezteko bada) gutxienez duen proiektu artistiko berria izatea, sorkuntza eta produkzio egutegia zehaztuta duela ere. <p>Aukeratutako proiektu bakoitzak ondokoak jasoko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sorkuntza egonaldirako espazioak (1-2 asteko 2 edo 3 egonaldi). Egonaldiak 2017ko azaroa eta 2019ko otsaila bitartean egingo dira. • 5.000 eta 10.000 € bitarteko diru-laguntza (BEZa barne), artistak edo konpainiak egonaldian zehar izan ditzakeen produkzio gastuak estaltzeko. • Mugikortasun diru-laguntza bat (2.000 eta 3.000 euro bitartean, gehienez – BEZa barne), sorterritik kanpoko eginiko egonaldien garraio eta ostatu gastuak estaltzeko. • Akonpainamendua sorkuntza prozesurako; babes administratiboa, komunikaziorako laguntza eskainiaz, etab.).Itsasotik Itsasorako kideek arduradun bat izendatuko dute proiektu bakoitzerako. <p>Aukeratutako artistak edo taldeak hartuko dituen konpromisoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Egonaldiak bi espazio ezberdinetan egitea gutxienez eta, posible balitz, horietako bat beste herrialdean egitea, sorkuntza espazioetako egutegiak aipatua ahalbidetzen dutenean; - Lan-fase bat aurkeztea egonaldi bakoitzean, lanaren aurrerapenaren arabera beti. - Egonaldia hartzen duen espazioaren dinamikan parte-hartzea: ikusle ezberdinekin eginiko topaketak (bitartekaritza kulturala), aurkezpenak, etab. - Jasotako laguntzaren kopurua faktura bidez justifikatzea; halaber, laguntza honekin ordainduriko gastu guztien ordainagiri

<p>kopiak aurkeztea (Sorkuntzari laguntza: entseguetarako, zuzendaritza artistikoarentzako ordainsariak eta bestelako sorkuntza eta produkzio gastuak / Mugikortasun beka: garraio, ostatu eta otorduetako fakturak).</p> <ul style="list-style-type: none"> - aurre-aukeratua izanez gero, 2017ko urriaren 16tik 19ra bitartean libre egotea Tolosara joateko, proiektuaren muntaketa eta aurkezpena egiteko (ikus aukeraketa prozesua); - Kideek edo lagunek antolaturiko ekitaldian parte-hartzea, beren presentzia eskatuko balute (Ikus Aukeraketa modalitatea). Partaidetza hori aurkezturiko lanaren arabera (work-in-progress, aurrestreinaldia, estreinaldia edo ikuskizuna) ordainduko da, bi aldeek normalean jartzen dituzten baldintzak errespetatuz. Hitzarmen berezia sinatuko da horretarako. - Kideei laguntzea prozesuaren jarraipenean (bilerak, galdetegia, ebaluazioak, etab.). Baldintza hau bete ezean proiektuak diru-laguntza osotasunean, edo partzialki, bueltatzea eskatuko dio hartzaileari. - Espazio ezberdinekin harremanetan jartzea, beren behar tekniko eta logistikoak egokitu eta egonaldiaren egutegia adosteko. <p>Proiektuen ebaluazioak ondoko alderdiak hartuko ditu aintzat:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Proiektuak aukeratutako modalitatera zenbateraino egokitzen den; - Proiektuaren kalitate artistikoa, maila teknikoa eta osagai berritzailea; - Zirku diziplinen garrantzia; - Sorkuntzari eskainitako denbora; - Sorkuntza egutegia; 2017ko ekainean bukatuko duten sorkuntzek lehentasuna izango dute; - Zuzendaritza artistikoa (kanpoko begirada, zuzendaria); - “De Mar a Mar” proiektuko bitartekoak erabiltzeko nahia (sorkuntza espazioen sarea, lurraldean duen proiektzioa, etab.); - Proiektua garatzeko planak (sorkuntza kudeatzeko eta hedatzeko ideia); - Proiektuak mugaz gaindiko lurraldeko ikusle ezberdinetara egokitzeko duen malgutasuna (testu gutxi -edo testurik ez- egongo dela aintzat hartuz); 	<p>kopiak aurkeztea (Sorkuntzari laguntza: entseguetarako, zuzendaritza artistikoarentzako ordainsariak eta bestelako sorkuntza eta produkzio gastuak / Mugikortasun beka: garraio, ostatu eta otorduetako fakturak).</p> <p>aurre-aukeratua izanez gero, 2017ko urriaren 16tik 19ra bitartean libre egotea Tolosara joateko, proiektuaren muntaketa eta aurkezpena egiteko (ikus aukeraketa prozesua);</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kideek edo lagunek antolaturiko ekitaldian parte-hartzea, beren presentzia eskatuko balute (Ikus Aukeraketa modalitatea). Partaidetza hori aurkezturiko lanaren arabera (work-in-progress, aurrestreinaldia, estreinaldia edo ikuskizuna) ordainduko da, bi aldeek normalean jartzen dituzten baldintzak errespetatuz. Hitzarmen berezia sinatuko da horretarako. - Kideei laguntzea prozesuaren jarraipenean (bilerak, galdetegia, ebaluazioak, etab.). Baldintza hau bete ezean proiektuak diru-laguntza osotasunean, edo partzialki, bueltatzea eskatuko dio hartzaileari. - Espazio ezberdinekin harremanetan jartzea, beren behar tekniko eta logistikoak egokitu eta egonaldiaren egutegia adosteko. <p>Proiektuen ebaluazioak ondoko alderdiak hartuko ditu aintzat:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Proiektuak aukeratutako modalitatera zenbateraino egokitzen den; - Proiektuaren kalitate artistikoa, maila teknikoa eta osagai berritzailea; - Zirku diziplinen garrantzia; - Sorkuntzari eskainitako denbora; - Sorkuntza egutegia; 2017ko ekainean bukatuko duten sorkuntzek lehentasuna izango dute; - Zuzendaritza artistikoa (kanpoko begirada, zuzendaria); - “De Mar a Mar” proiektuko bitartekoak erabiltzeko nahia (sorkuntza espazioen sarea, lurraldean duen proiektzioa, etab.); - Proiektua garatzeko planak (sorkuntza kudeatzeko eta hedatzeko ideia); - Proiektuak mugaz gaindiko lurraldeko ikusle ezberdinetara egokitzeko duen malgutasuna (testu gutxi -edo testurik ez- egongo dela aintzat hartuz);
---	---

- Fitxa teknikoaren bideragarritasuna kultura espazio ezberdinetara egokitzeko. Aukeratutako konpainiek edo artistek hitzarmen bat sinatuko dute “De Mar a Mar” proiektuko kideren batekin. Hitzarmenak proiektuari ematen zaion babeseta eta kidearen konpromisoa zehaztuko ditu.	- Fitxa teknikoaren bideragarritasuna kultura espazio ezberdinetara egokitzeko. Aukeratutako konpainiek edo artistek hitzarmen bat sinatuko dute “De Mar a Mar” proiektuko kideren batekin. Hitzarmenak proiektuari ematen zaion babeseta eta kidearen konpromisoa zehaztuko ditu.
---	---

-----AUKERAKETA PROZESUA -----

Aukeraketa-batzordean “De Mar a Mar” proiektuko bazkideen ordezkariak izango dira. Aukeraketa **fase bitan** egingo da:

1. Aurre-aukeraketa: jasotako hautagaiak ikusita, “De Mar a Mar” proiektuko aukeraketa-batzordeak 2017ko irailean aukeratuko ditu bigarren fasera joango diren proiektuak.
2. Aukeraketa: lehen fasean aukeratutako konpainiak Tolosara gonbidatuko dira urriaren 17tik 19ra, **beren proiektua work-in-progress formatuan aurkezteko (gehienez ere e15 minutu); horren ondoren ahozko aurkezpen bat egingo da.** Aurkezpen horretan sorkuntza espazioetarako ordezkariak eta “De Mar a Mar” proiektuko programatzaile bazkideak izango dira.
Behin betiko aukeratua izateko, proiektu batek programazioko hiru espazioren interesa eduki behar du gutxienez (2018ko udatik aurrera programatuko dituzte). Konpainien joan-etorrietako gastuak (jatorduak, bidaiak eta ostatua) “De Mar a Mar” proiektuko bazkideek ordainduko dituzte.

-----HAUTAGAITZAK AURKEZTEA -----

Modalitate bakoitzerako hautagaitzak aurkezteko orria **online egongo da eskuragarri**, “De Mar a Mar”-ko webgunean:
<https://demaramarblog.wordpress.com/>, bai eta “De Mar a Mar” proiektuko kideetako webgunetan ere:

[B modalitatea – Inprimakia –Artista edo konpainia hasiberrien sorkuntza proiektuak](#)
[C modalitatea – Inprimakia –Finkatutako artista edo konpainien sorkuntza proiektuak](#)

Oharra! Deialdi honetan parte hartzeko, online den orria betetzea derrigorrez izango da. Inprimaturiko galderak bidaltzea eskatu daiteke posta elektronikoz.

Era berean, dokumentu osagarriak (argazkiak, fitxa teknikoa, ikuskizunaren txostena, etab.) bidali nahi dituen orok **projetdemaramar@gmail.com** helbide elektronikora bidali beharko ditu, PDF formatuan (gehienezko pisua: 5 MB).

Proiektuak aurkezteko epemuga: 2017ko irailaren 1a, 23:59

Informazio gehiagorako, harremanetan jar zaitezte ondoko helbidearekin:

· 2017ko uztailaren 31a arte :

La Central del Circ - Nini Gorzerino, creacio@lacentraldelcirc.cat

Hameka – Aurélie Pousset, a.pousset@cc-errobi.fr

· 2017ko abuztuaren 24tik irailaren 1era :

La Grainerie - Jean-Marc Broqua, jm-broqua@la-grainerie.net

La Grainerie - Hélène Métailié, h-metailie@la-grainerie.net

(Uztailaren 31tik abuztuaren 24a arte, ezingo ditugu zuen galderak kontutan hartu)

« De Mar a Mar » proiektuaren kideak

La Grainerie (Okzitania)

APCC - La Central del Circ (Katalunia)

Associació de CircRogelio Rivel (Katalunia)

Ax-Animation (Okzitania)

Ayuntamiento de Bilbao (Euskadi)

Ayuntamiento de Huesca (Aragoi)

Belén Alvarez (Nafarroa)

Consorti Transversal (Katalunia)

Euskal Hirigune Elkargoa - Hameka (Akitania berria)

Euskal Hirigune Elkargoa - Scène de Pays Baxe Nafarroa (Akitania berria)

Diputación de Huesca (Aragoi)

Réseau en Scène Languedoc-Roussillon (Okzitania)

Université de Toulouse II Jean-Jaurès (Okzitania)

Ville de Toulouse – Le Lido (Okzitania)

Bazkide elkartua - Fira Tàrrega (Katalunia)

Bazkide elkartua

Fira Tàrrega (Katalunia)

De Mar a Mar – Zirkuko Pirineoak 2016-2019 eperako lankidetzat proiektu bat da. 1.990.390€ko aurrekontu batekin, Europar Batasuneko (FEDER) Eskualdeen Garapenerako Europar Funtsak % 65ean finantzatzen du, Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra Programaren bidez (POCTEFA 2014-2020). POCTEFAk mugaizgandiko lurraldeko ekonomiko eta sozial integrazioa indartzeko helburua du.



Proiektua FEDERetik finantziatuta

Interreg
POCTEFA

